

**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

Barik txartela % 1,5 gehiago erabili da, eta lehenengo aldiz egin dira 120 milioi balioztatze baino gehiago urtean.

- **BGPk Bizkaian zehar garraio publikoan mugitzeko atera zuen kontakturik gabeko euskarriak 120.065.100 bidaia erregistratu zituen iaz.**
- **Lurraldeko joan-etorrien % 73 inguru Barik txartela erabiliz egiten dira.**
- **Bizkaiko garraio publikoko “contactless” edo kontakturik gabeko txartelak 73.895 bidaia erregistratu zituen Gasteizko tranbian.**

Bilbo, 2016ko otsailaren Xa.

2012ko urrian denentzat aktibatu zenetik, Barik txartelaren erabilera etengabe ari da hazten. 2015ean zehar, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) kontakturik gabeko euskarriak 120.065.100 bidaiari izan ditu, hau da, 2014an baino 1.753.335 gehiago. Horrela, hazkunde-tasa % 1,48koa izan da.

Txartelaren hedapena eta erabilera bizkaitar guztien artean zabaldu da; izan ere, gaur egun Bizkaiko biztanleak baino Barik txartel gehiago daude: 1.322.243 txartel daude. Eta Bizkaiko “muga” ere gainditu du txartelaren erabilerak. Kopuru orokorrak aintzat hartuta, datu bat azpimarratu behar da: Barik txartelarekin Gasteizko tranbian egin ziren 73.895 bidaiak, Barik, Mugi (Gipuzkoa) eta Bat (Araba) euskarriak Eusko Jaurlaritzaren menpeko garraibideetan (Gasteizko eta Bilboko tranbiak eta Larreinetako funikularra) erabili ahal izateko akordioari esker egin zirenak.

Urte batzuk igaro ostean, Barik dagoeneko finkatu da Bizkaiko garraio publikoaren euskarri bakar gisa, batez ere erabiltzeko azkarra, eroso eta segurua delako. Gainera, txartel bakarraren Bizkaiko euskarria izan daitekeela erakutsi du.

Barik txartel mota desberdinek (anonimoak, erregistratutakoak edo pertsonalizatuak) garraio-txartel desberdinak barne hartzen dituzte. Besteak beste, Creditrans diru-txartelarekin egin zen balioztatze gehien 2015. urtean (94.255.362 balioztatze, hots, Barik sistema osoaren % 78,5). Gizatrans txartela (65 urtetik gorako pertsonentzakoa) da gehien erabiltzen den bigarren txartela, 23.433.558 bidaiarirekin. Horren ostean hileko Gazte txartela dago (26 urtetik beherakoentzakoa), 2014ko uztaillean Barik sistemara gehitu zena; txartel honekin 2.376.180 balioztatze egin ziren.

2014ko datuekin alderatuta, BGPren txartel guztiek izan zuten erabilera handiagoa, Creditrans txartelak izan ezik, honek % 0,13ko erabilera izan baitzuen. Gizatrans % 0,44 gehiago erabili zen. Bestalde, Hileko Gazte txartelak 2.376.180 bidaiari izan zituen; horietako 1.144.049 Bizkaibusen, 1.083.169 Metro Bilbaon eta 148.962 Bilbobusen.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Partzuergoaren txartelen artean, familia ugariaren profilak gero eta merkatu-kuota zabalagoa izaten jarraitzen du. Guztira, % 20ko edo % 50eko deskontua aplikatu zitzaizen 3.275.296 bidaia egin ziren (2014aren aldean +% 7,92), erabiltzailearen kategoria orokorraren (F20) edo bereziaren (F50) arabera.

Operadoreei dagokienez, herritarrek gehien erabiltzen dituzten garraioetan nabaritu zen Barik txartelaren hedapena. Metro Bilbaok Barik txartelaren erabiltzaileen ia erdia (% 48,79) hartu zuen, 58,5 milioi balioztatzerekin. Bigarren postuan Bilbobusen bezeroak daude, 24,2 milioi balioztatzerekin (erabiltzaileen % 20,22); eta hirugarren postuan, aldiz, Bizkaibusen erabiltzaileak daude, 22,7 milioi balioztatzerekin (erabiltzaileen %18,98). Horien atzetik geratu dira, tarte handiarekin gainera, Renfe (3,9 milioi bidaia Barik txartelarekin), Euskotren (3,2 milioi), Euskotran (2,2 milioi) edo Bizkaia Zubia (2,2 milioi).

DIRU-SARRERAK ETA KARGAK

Iaz, Barik txartelaren erabiltzaileek 11.480.051 aldiz kargatu zuten txartela (94,79 milioi euro) eta 242.560 txartel berri igorri ziren.

Gaur egun 1.322.243 Barik txartel daude; horietako 435.040 pertsonalizatuak dira (245.877 gorriak, Gizatrans) eta gainerakoak, 887.203, anonimoak dira (hauetako 49.259 erregistratuta daude).

Txartela errazago erabiltzeko asmoz, Bizkaiko Garraio Partzuergoak txartela kargatzeko saltoki gehiago prestatu du. Bizkaian guztira 1.130 saltoki fisiko daude txartela kargatzeko, eta lurraldetik kanpo beste 298 saltoki Kutxabank kutxazainetan (87 Araban eta 206 Gipuzkoan). Abendutik aurrera, gainera, Barik *ctb.eus* webgunearen bidez ere karga daiteke; eta laster sakelako telefonotik ere egin ahal izango da. Bestalde, erabiltzaileek denbora luzeagoan erabili ahal izango dute txartela, BGPK iaz erabaki baitzuen txartelaren indarraldia beste hiru urtez luzatzea (4tik 7 urtera igaroz).

Partzuergoaren kontakturik gabeko txartelarekin Bizkaiko garraio publiko ia guztiak erabil daitezke. Diru-txartel gisa funtzionatzen duen Barik txartel bat dago (creditrans), baita pertsonalizatua den beste bat ere, hileko txartelak eta Familia Ugaria, Bilbotrans, Giza (65 urtetik gorakoentzat, ezintasun osoa edo handia dutenentzat eta % 65eko edo gehiagoko elbarritasuna dutenentzat) edo Gazte (Bizkaian errolatuta dauden 26 urtetik beherako pertsonentzat) profilen baldintza bereziak lortzeko dena.

<http://www.ctb.eus/es/como-funciona-barik>